

INOREN ERO NI-ren

Il cercatore di perle diskoa alderantziz entzuten Okene Abregorekin

Duela 18 urte hasi zuen ibilbidea Inoren ero ni taldeak, 2002an, kapikua baita palindromoaren lagun numerikoa. Ordutik sei disko atara dituzte. Azkena *Il cercatore di perle* (Bidehuts, 2019), “perla bilatzailea”, alegia. Izenburu horrek zeharo laburbiltzen du taldearen izaera, hori baita Inoren ero nik egiten duena, etengabe soinu berriak bilatu. Zintan grabatu dute, pista anitzeko grabagailu analogiko batekin, unean egindakoa erregistratu eta naturaltasuna bilatzeko; eta soinu hori babesteko 180 gramoko biniloan argitaratu dute, “edozeini burura botata akabatzeko moduko katxarroa” Okene Abrego abeslariaren hitzetan. Berarekin bildu gara, Borja Iglesias, Mariano Hurtado eta Iñaki Guantxerekin batera duen taldearen entsegu lokalean, disko berriaz hitz egiteko.

 **XABIER BURGAÑA MAZKIARAN**
 **DANI BLANCO**

Egungo formazioa guztiz errota, osasun betean dago Inoren ero ni, eta COVID-19ak eragindako osasun-krisiak kontzertu guztiak bertan behera utzi baino lehen egin zituzten zuzenekoetan nabaritu da. Zaleengandik gertu sentitzen dira, eta haien aurpegietan, jarreran, islatuta ikusten dute. Elkarriketa hau egin den egunean, Bilbo eta Gasteizen jo berritan zeuden, eta kontzertu horietan, ohi duten moduan, inprobisazioaz baliatu ziren, haien arteko begirada hutsez jotzen ari direna beste puntu batera eramanez. Argi dago Inoren-en musika etengabeko jolas bat dela.

Il cercatore di perle diskoa Garatzen grabatu dute, Martxel Arkarazoren gidaritzapean, eta hainbat kolaborazioekin. Izan ere, diskoaren kredituetan taldeki-deez eta Martxel beraz gain, Mikel Txopeitia eta Xabier Olazabal Drake taldekide ohiak ere agertzen dira, Inge, Borjaren semearekin batera. Taldekide ohi esan dugu, baina berehala zuzendu digu Okenek, Martxel beraz gain, Mikel eta Drake taldekideak baitira oraindik. Martxelen kasuan, gainera, taldearen zuzenekoetan soinu mahaian aritzen

da, baina musikan ere parte hartzen du hainbat efektu-pedalen bitartez, diskoan ere egin duen bezala.

Diskoko abestietatik tiraka, taldearen elementu eta egiteko moduez aritu gara solasean, eta kanta bakoitzari buruz Okenek esandakoak bildu ditugu segidan. Diskoko ordena, ordea, alderantzikatu egin dugu, hartara, hau irakurri ondoren diskoa entzutera bazoazte, palindromoa osatuko duzue.

4. ZERRIA

MIKEL LABOAREN ERAGINA

“Nik uste dut ez dela lehenengo aldia nabaritzen dena Laboatik datorren eragina. Beste taldeki-deentzat agian ez, baina bereziki niretzat bada iturri bat, nondik edan egiten dudan inongo lotsarik gabe. Aurretik badaude hainbat hitz eta egitura, eta horietan garbi ikusten da egiten dudana nik ez dudala asmatu. Beste kasu batzuetan ere beste musikari batzuen eragina argi ikusten

da. Eta abesti honen kasuan, aurretik egin ez dugun zerbait da. Estudioan sartu aurretik ez zen kanta existitzen, estudioko inprobisazio une batetik sortu zen, eta bi egun

“
Nire ibilbide osoan
autodidakta izan naiz, eta
gero eta gehiago, etengabe jolas
egiten dut nire ahotsarekin,
testura desberdinak
bilatuz, kantatzeko era
desberdinak erabiliz”



eta erdi zituen grabatu genuen unean. Orain ikusten duzu eta esaten duzu: hori balentria! Horrela atera da, baina beste edozein tokitik irten zitekeen. Baina horretan ere, ikusten dugu gero eta gehiago gaitasuna dugula egiteko, momentuan egiteko, eta momentu hori diriratsua izateko”.

“Estudioan hiru bertsio ezberdin eduki zituen abestiak, eta originaletik geratu denera bada alde. Originala hain izan zen bat-batekoa. Guk grabatutako hainbat zatirekin aurre-maketa moduko bat egin genuen ordenagailuz, eta geratzen zena zen rolo bat oso laboatarra. Nik horrelaxe atera nahi nuen diskoan, baina soinu kalitatea okerra baino okerragoa zen. Abesti puska bat zen, ordea”.

INPROBISAZIO UNEAK

“Bere momentuan gainera, asmoa genuen gure Bandcamp orria baliatuz, hau bera eta beste harribitxi batzuk igotzeko, zeren badaude inprobisazio hutsez

egindako momentu batzuk... Aurreko diskoan halako pieza batzuk sartu genituen. Honetan ere egin nahi genuen, baina aurretik egin geneukan zerbait zen. Disko honetan laburbildu egin ditugu atera diren indar askoko gauzak. Baliteke *Zerria*-ren lehen bertsio hori, eta beste inprobisazio batzuk ere Bandcamp-ean argitaratzea, erakusteko disko hau egitean gauza handiak ere gertatu direla. Baina gehiegi erakutsi gabe ere, musikak duen benetakotasun hori babesteko. Gaur egungo ohiturekin, bat-batekotasuna eta egindako guztia erregistratu eta erakutsi behar hori... Horren inguruan hitz egin izan dugu eta saiatzen gara dena ez erakusten. Horregatik kontu hau geldirik dago, baina baliteke horrekin zerbait egitea”.

3. IL CERCATORE DI PERLE

HITZAK

“Abesti honek niretzat laburbiltzen du

Inorenen egiteko modua. Kasu honetan, hitzak Borjarenak dira, eta bere buruaz ari da, baina bera Inoren ero niren partaide eta fundatzaileetako bat da. Berak hainbat gauza eta letratan ere behar genuen tokian jarri gaitu ideologikoki. Ez da gure ariketa huts bat. Bada musika, hitza, bizitza, artea, hainbat gauza lotzen dituen zurrumbilo bat”.

“Borjaren hainbat letra euskarara itzuli izan ditut, erdara gehiegi ez erabiltzeagatik. Beste batzuk erdaraz joan dira. Oso polita da hau erdaraz, baina aspalditik dut jolas horretan hizkuntza aldatzearen kontua. Eta oso desberdina da ahots bat entzutea hizkuntza batean edo bestean. Hau italieraz da ondoan neukalako garai eta momentu horretan ama hizkuntza italiera zuen pertsona bat eta oso garbi ikusi nuen. Bestela ere, asko gustatzen zait italieraren sonoritatea. Baina asko gustatzen zait portugesa ere, edo alemana. Jolas hori niretzat intentzio deklarazioa da. Eta diskoaren izenburua



Borjak ikusi zuen erraz joan zitekeela italieraz, eta uste dut beste behin lortu dugula gauzak gure pentsamenduari oso lotuak ateratzen joatea askorik pentsatu gabe. Ez dakit lortu dugun, baina honek umorearen aldera doan puntu bat badu.

Il cercatore di perle, zergatik ez?

Badu puntu bitxi bat, ezohikoa, bertako talde bat, ki-deek hizkuntza horretan hitz egiten jakin gabe, hizkuntza horretan diskoari izenburua jartzen. Zuzenean ere badaukagu umore puntu hori, oso natural ateratzen zaiguna, gure artean filtrorik gabe hitz egitea, lokalean bagina bezala.

Saiatzen gara puntu alai eta umoretsua ematen. Letra gehienak sakonak eta oso esanahi alaiak ez izan arren, dena sartzen da kokteleran”.

AHOTSAREN JOLASA

“Nire ibilbide osoan autodidakta izan naiz, eta gero eta gehiago, etengabe jolas egin dut nire ahotsarekin, testura desberdinak bilatuz, kantatzeko era desberdinak erabiliz, errezitatzetik oihu urratu baterainoko tartean dau den gauzak probatzen. Jolas horretan jarraitzen dut. Gustatzen zait nire aho-

tza entzun eta ni naizenik ere ez antzematea. Inorenen musikan beste kondimentu bat jolas hori da”.

ABESTIEN METRIKA BEREZIAK, KONPASEN NEURRIAK

“Gutxitan da gure musika karra-tua edo ohikoa. Oso horrelakoak gara, eta horregatik da gurea berezia.

Gaur egun ez gara saiatu ere egiten, horrela ateratzen zaigu. Beti alde batetik edo bestetik puskatu egiten ditu hainbat eura, izan behar du askea eta ezohikoa. Hasiera-hasieran bazen estilo lan bat, baina gero estilo hori finkatu genuen eta etengabe egin duguna estilo horrekin jolastea izan da. Eta estilo hori amaigabea da”.

“Gutxitan da gure musika karra-tua edo ohikoa. Oso horrelakoak gara, eta horregatik da gurea berezia. Gaur egun ez gara saiatu ere egiten, horrela ateratzen zaigu. Beti alde batetik edo bestetik puskatu egiten ditu hainbat eura, izan behar du askea eta ezohikoa. Hasiera-hasieran bazen estilo lan bat, baina gero estilo hori finkatu genuen eta etengabe egin duguna estilo horrekin jolastea izan da. Eta estilo hori amaigabea da”.

2. MINAREN GAUZATZEA

GIRO ETA INTENTSITATE ALDAKETAK

“Gure jolasaren parte bat da. Argi erakusten du oso ipurterreak garela. Balada batekin hasten gara, baina nola bukatzen den! Balada *Lanbada*-n bukatzen da [barreak]. Ez, hor pasa egin naiz. Baina bai, beste toki batera joa-

ten da. Eta era berean abestiari indarra ematen dio, oso arima askea dugun taldea garela frogatuz, abesti bakar batean xuxurlatik oihura joan gaitzkeela. Asko gustatzen zaigu intentsitate jolas hori. Zuzenean ere erabiltzen dugu abestiaren ordenarekin, eta gaur egun gero eta gehiago abestiak elkar lotzen hasi gara. Abesti honen kasuan, hurrengo abestiarekin lotzean beste abesti bat sortu da. Pasa ditzakegu bi-hiru minutu inoren lurretan, eta gauden tokitik goazen tokira zer edo zer desberdina sortzen dugu, ia-ia abesti berri bat, inprobisazio batetik. Horrela ikusten gaitu jendeak disfrutatzen, egiten dugun horretan gauzak bilatzen ari baikara, *il cercatore* bezala”.

OINARRI ERRITMIKOA, BATERIA ETA BAXUA

“Gure firma osatzen duen beste elementu bat da, oso indartsua dena niretzat. Bihotza soilik ikusten da hor, eta nahi adina utz dezakegu agerian. Abesti batean baino gehiagotan haiek bakarrik geratzen dira. Intentsitate jolasa asko gustatzen zaigu, esan dudan bezala. Hemen goian zaude, hainbat elementurekin, eta bat-batean dena kentzen da eta bihotz hori agerian geratu. Tarte horretan egon gaitzke bi minutu edo lau, horri arnasa hartzen uzteko, eta gero berriro sartzerakoan denak hartzen du



bere arrazoia eta bere indarra. Gure egiteko eraren beste elementu bat da”.

BUKOWSKIREN POESIAREKIN JOLASEAN

“Batuetan letra guztia sartzeagatik abestia baldintzatua geratzen da. Hainbatetan beste egile batzuen letrak erabiltzen ditut, baita nireak ere, eta Borjarenak asko, eta errespetuagatik osorik sartu izan ditut. Lehen aldia da aurrean letratzarra dudala abesteko, eta horrekin nahi dudana egiten dudala, musikak eskatzen zidana eginez. Ez bada ulertzen hortxe duzu letra osorik liburuxkan. Nik uste hortik joko dudala gehiago hemendik aurrera. Beste jolas bat sortu da horrekin, eta ikusita nola geratu den oso kontent nago. Ez gaude jolas honekin tematuta, baina disfrutatu egiten dugu. Momentuko erabakiak dira, gehiegi pentsatu gabe hartuak, eta bere horretan izugarria iruditzen zaigu. Esperimentazioaren aldetik jarraitzen dugu, eta egiten ari garen horretan gauzak topatzen joaten gara”.

1. AMEN ETA ORAIN

TRONPETA

“Tronpeta jotzen hasi nintzen aitzaki garbi batekin. Hau da lehenengo diskoa Mikel (Txopeitia) anaiak samplerrik sartzen ez duena. Pad bat zeraman,

eta bateria jotzearekin batera erreproduzitzen zituen samplerrak. *IENNEI* (Bidehuts, 2016) arte disko guztietan sartu ditu, eta guzti-guztiak ez badi-ra, ia guztiak, metal eroak dira: tronpetak, saxoak, klarineteak... denetik. Baten batek badu melodia pixka bat, baina gehienak dira oso eroak. Aspaldi banuen ideia, tronpeta asko gustatzen zitzaidan, eta otu zitzaidan Mikelek utzi ondoren samplerren kontua berreskuratzea, baina nik eginda, berak ezarritako oinarri horretan bere buruan zeuden gauza horiek egiteko. Disko hau da lehena tronpeta sartzen dudana, eta sampler horiek desagertu direna. Eta ze sorpresa nirea, tronpeta bat hartu nuen lehen aldian kristoren soinu-tzarrara atera niola. Hori bai, jakin gabe zer aterako zen aldi bakoitzean. Baina horrek gehitzen dio daukan ero puntu hori. Nire balioetariko bat tronpetarekin da ez dakidala zer aterako den, eta kristoren jokoa ematen du horrek. Hala ere, abesti bakarrean sartu dut, gauza hauek neurritz joan behar baitira. Eta bitxia da, tronpeta hori entzunda garbi ikusten da ez dakidala ondo jotzen, baina era berean, erabat doakio abestiari. Bai izenburuari, letrak esaten duenari... Gure nortasunarekin bat egiten du, eta orain gure eskaintzaren parte da”.

BAT-BATEKOTASUNA, INPROBISAZIOA

“Grabaketa aurretik gauza asko itxi gabe zeuden. Abesti bat estudioan bertan egin da, baina beste bi bertan itxi ziren, egitura asko dantzan zeuden eta. Nik oraindik ez nekien ahotsa non edo nola sartu, melodia batzuk nire buruan bakarrik zeuden probatuta. Disko hau batez ere ‘hemen eta orain’ egin da. Abesti hau da aurretik egin zegoen bakarra, eta zuzenean ia bi urtez jo izan dugu kontzertuei hasiera emateko, aurkezpen modura. Askea da eta oraindik egiten ari da, kontzertuetan aldaketak egiten dizkiogulako, baina erabat egin dago. Hemen eta orain, printzipio deklarazioa da, pixka bat esanaz ‘ahaztu dena, ahaztu mugikorra deitzen den gailu bat duzula poltsikoan, ahaztu gero autobusa duzula, ahaztu nondik zatozen, eta zentratu bizitzen ari zaren momentu horretan’. Eta niretzat oso inportantea da hori, kontzertu bat ez baita hari musikal bat, arreta eta nolabaiteko konplizitatea behar ditu komunikazioa benetan egon dadin. Horregatik, oso inportantea da momentua bizitzea. ●

mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA

EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

Ingurumenaren
Nazioarteko
Eguna

Zaindu
maite
duzun
hori

Alegiako
Urtula